

**I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA**

Arabako Foru Aldundia

**OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**

**742/2018 Foru Agindua, abenduaren 19koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren azaroaren 29ko 701/2018 Foru Agindua. Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak erosteko gordailuen urteroko informazio aitortpena**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren azaroaren 29ko 701/2018 Foru Aginduaren bidez, onespena eman zitzaion berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak erosteko gordailuen urteroko informazio aitortpenari.

Foru Arau honen bidez, ereduaren euskarri diseinuen hainbat eremuren jarraibideak beste era batera idatziko dira.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena aztertu da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

**Artikulu bakarra. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren azaroaren 29ko 701/2018 Foru Agindua. Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak erosteko gordailuen urteroko informazio aitortpena**

Aldaketa hauek sartzten dira Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren azaroaren 29ko 701/2018 Foru Aginduaren (Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak erosteko gordailuen urteroko informazio aitortpena) I. eranskinean, 782 ereduari dagozkion euskarriek bete beharreko diseinu fisiko eta logikoei buruzkoan:

Bat. Aldatu egiten da 2. motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 149tik 152ra arteko posizioei dagokien "GORDAILUAREN TITULARTASUNAREN PORTZENTAJEA" eremua, eta 149tik 153ra arteko posizioetan geratuko da, honela idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
149-153	Zenbakizkoa	GORDAILUAREN TITULARTASUNAREN PORTZENTAJEA Aitortuak gordailuan duen titulartasunaren portzentajea idatzi behar da. Eremu hau bitan banatzen da: 149-151: Zenbakizkoa. OSOA: Zati osoa. Portzentajearen zati osoa idatzi behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira. 152-153: Zenbakizkoa. DEZIMALA: Zati dezimala. Portzentajearen zati dezimala idatzi behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

Bi. Aldatu egiten da 2. motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 153tik 158ra arteko posizioei dagokien "EKITALDIAN GORDAILUTUTAKO ZENBATEKOAK" eremua, eta 154tik 159ra arteko posizioetan geratuko da, honela idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
154-159	Zenbakizkoa	<p>EKITALDIAN GORDAILUTUTAKO ZENBATEKOAK</p> <p>Aitortuak, martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauko 10. artikuluan xedatutako irizpideak betetzen dituzten berrikuntza sustatzeko Europako funtsetako partizipazioak eskuratzeko xedeaz, ekitaldian gordailuaren kontuan gordailututako zenbatekoak idatzi behar dira.</p> <p>Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.</p> <p>Balioak ezin du zeinurik izan (+/-), ez eta koma dezimalik ere.</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p> <p>154-157: Zenbakizkoa. OSOA: Zati osoa. Ekitaldian gordailututako zenbatekoen zati osoa idatzi behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p> <p>158-159: Zenbakizkoa. DEZIMALA: Zati dezimala. Ekitaldian gordailututako zenbatekoen zati dezimala idatzi behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p>

Hiru. Aldatu egiten da 2. motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 159 posizioari dagokion "IRAUNGITZEA" eremua, eta 160 posizioan geratuko da, honela idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
160	Zenbakizkoa	<p>IRAUNGITZEA</p> <p>Gordailua ekitaldian iraungiz gero, ondoko gako hauetako bat jarri behar da:</p> <p>1: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Forua Arauaren 90 ter artikuluan zehazten den 5 urteko epea amaitzean iraungi bada gordailua.</p> <p>2: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Forua Arauaren 90 ter artikuluan zehazten den 5 urteko epea amaitu baino lehen iraungi bada gordailua, osatzen zuten zenbatekoak atera direlako.</p> <p>3: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Forua Arauaren 90 ter artikuluan zehazten den 5 urteko epea amaitu baino lehen iraungi bada gordailua, gordailuaren titularrak hil delako.</p> <p>4: Gordailua aurreko zenbakietan adierazitakoa ez den beste arrazoi batengatik iraungi bada.</p> <p>Gordailua aitorpenari dagokion ekitaldian iraungi ez bada, eremu hau hutsik utzi behar da.</p>

Lau. Aldatu egiten da 2. motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 160tik 167ra arteko posizioei dagokien "IRAUNGITZE DATA" eremua, eta 161etik 168ra arteko posizioetan geratuko da, honela idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
161-168	Zenbakizkoa	<p>IRAUNGITZE DATA</p> <p>IRAUNGITZEA eremuak (2. erregistro motako 115 posizioa) edukirik baldin badu, gordailuaren iraungitze data adierazi behar da.</p> <p>161-164: Zenbakizkoa. URTEA</p> <p>165-166: Zenbakizkoa. HILABETEA</p> <p>167-168: Zenbakizkoa. EGUNA</p>

Bost. Aldatu egiten da 2. motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 168tik 173ra arteko posizioei dagokien "EKITALDIAN ATERATAKO ZENBATEKOAK" eremua, eta 169tik 174ra arteko posizioetan geratuko da, honela idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
169-174	Zenbakizkoa	<p>EKITALDIAN ATERATAKO ZENBATEKOAK</p> <p>IRAUNGITZEA eremuak (2. erregistro motako 115 posizioa) edukirik baldin badu, gordailuaren iraugitze data baino lehen ateratako zenbatekoak idatzi behar dira.</p> <p>Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira. Balioak ezin du zeinurik izan (+/-), ez eta koma dezimalik ere.</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p> <p>169-172: Zenbakizkoa. OSOA: Zati osoa. Ekitaldian eta gordailua iraungi baino lehen ateratako zenbatekoen zati osoa idatzi behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p> <p>173-174: Zenbakizkoa. DEZIMALA: Zati dezimala. Ekitaldian eta gordailua iraungi baino lehen ateratako zenbatekoen zati dezimala idatzi behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p>

Sei. Aldatu egiten dira 2. motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) ZURIUNEAK posizioei dagozkien 174tik 500era arteko posizioak, eta 175etik 500era arteko posizioetan geratuko dira.

#### AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta, lehenengo aldiz, 2019an aplikatuko da, 2018ko ekitaldiari dagokion informazio aitortpena aurkezteko.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 19a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua*  
**JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ**

*Ogasun zuzendaria*  
**TERESA VIGURI MARTÍNEZ**